

MANGAIXUE BIKE BTT MARTXA ARAUDIA

“Mangaixue Bike BTT Martxa”ren parte hartzaile naizenez, aitortzen dut:

- 1.- Araudia ezagutzen dut eta oso-osorik onartzen dut.
- 2.- Badakit lehiarik gabeko proba zikloturista dela; beraz, ez da lehiaketa.
- 3.- Hitz ematen dut Bide Segurtasunari buruzko legea eta haren arauak beteko ditudala, baita bideetako gainontzeko erabiltzaileak errespetatu ere.
- 4.- Nire parte hartzeak eraginda, zirkulazio arazo zein kirol istripua bada, erantzukizunetik salbuesten ditut Anaitasuna MB antolatzailea, Azkoitiko Udala eta antolatzailearekin lotutako pertsona fisiko nahiz juridiko guztiak.
- 5.- Nire parte hartzeak eraginda, osasunari dagokionean, edozein kalte gertatuta ere, aurrez aipatutakoei ez diet erantzukizunik eskatuko; onartzen dut proba honek eskatzen duen ahalegin fisikoak osasunari arriskuren bat ekar liezaiokeela.
- 6.- Nire parte hartzeak eraginda, norberaren gauzaren bat galdu, izorratuko balitz, lapurreta, galtzea edo bestelakoren bat gertatuta, ez diet aurrez aipatutakoei konturik eskatuko, ezta errurik egotziko ere.
- 7.- Hala informatuta, eta emandako informazioarekin ados, beharrezko galderak egin eta proba egiteak dakartzan arriskuen inguruko zalantzak argitu ondoren, jakitun naizela aitortzen dut:
 - ☐ Badira zati eta jaitsiera arriskutsuak: horietan arretaz jokatu dut eta antolatzaileek nire mesedetan emandako jarraibideei kasu egingo diet.
 - ☐ Probaren Mediku Zerbitzuei baimena ematen diet beharrezkoa litzatekeen edozein sendatze lan egiteko, eskatzeko egoeran egon edo ez; horrez gain, proba bertan behera utziko dut, mediku zerbitzukoek nire osasunerako onena dela irizten badiote.
 - ☐ Beti kaskoa jantzita izango dut; bestela, dortsala kendu eta eta probatik kanporatuko naute.
 - ☐ Dortsala norberarena da eta besterenezina.
 - ☐ Edozein arazo tarteko, aurreikusitako ordutik kanpo banabil, proba utziko dut, hori ez oztopatzearren.
 - ☐ Kideak errespetatuko ditut eta ingurua ere bai. Ez dut zaborrik botako ibilbidean zehar.
 - ☐ Proba egunean, antolatzaileek hartuko lituzketen erabaki eta aldaketak onartzen ditut. Justifikatutako arrazoiak tarteko, gerta liteke , gainera, ibilbidea aldatu beharra izatea, edo/eta proba bertan behera uztea, eguraldia dela eta.
- 8.- Gure araudiak ez ezik, kirol proba hau indarrean dagoen Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren Araudi Teknikoak arautzen du.
- 9.- DBLO (Datuen Babesari buruzko Lege Organikoa) beteta, jakinarazten didate nire datu pertsonalak antolatzaileen esku dagoen datu basean jasoko direla fitxategi batean, txirrindulari martxak tarteko harremanetan izateko asmoarekin. Dena dela, gordetzea nahi ez badut, *mangaixuebike@hotmail.com* postan jakinarazi beharko dut eta baja berretsi .
- 10.- **18 urte baino gutxiagoko parte hartzaile orok** bete beharko du:

Nik NAN duenak,

ama / aita / tutore bezala, neure erantzukizunpean, baimena ematen diot nire seme/alaba

.....-ri, jaiotze-data duenari,

2018ko irailaren 15an egingo den Mangaixue Bike BTT martxan parte hartzeko. Horrekin batera, martxaren arauak eta baldintzak onartzen ditut eta aitortzen dut egoera fisiko egokia

duela horrelako jarduera fisikoa burutzeko. Beraz, antolatzaileak, laguntzaileak eta boluntarioak, euren lanei dagokienean, edozein erantzukizunetik salbuesten ditut.

IZEN-ABIZENAK:

SINADURA